



**Hernani txapeldun, bere errekorra hautsita.** Arkaitz Goñi, Xabier Errazkin eta Sergio Roman EITB Trindoor txapelketako historian geratuko dira, eurek irabazi baitute txapelketaren lehendabiziko edizioa. Hernaniko hirukoteak, finalerdietan

eurek jarri zuten errekorra hautsi zuten atzo, Miramonen, platabete animatzaileen aurrean, eta beste hiru talde haundiren kontra: Azpeitia, Villabona eta Tolosa. 15 minutu eta 10 segundu behar izan zituzten, aurrekoan baino 12 segundu gutxiago. /3

## Langile Ikastola - Kontzentrazioa Hezkuntza Sailean

# 300 bat pertsona bildu ziren hezkuntza proiektua aukeratzearen alde

Langile Ikastola ez dago ados Hezkuntza Sailak hartu dituen zenbait erabakirekin eta asteazkenean kontzentrazioa egin zuten Donostiako Hezkuntza Sailaren aurrean.

HEZKUNTZA proiektua aukeratzeko eskubidearen alde, inposaketarik ez, 4garren lerroari bai!!! lema zuen pankartaren atzean,

Langile Ikastolako 300 inguru irakasle eta guraso bildu ziren asteazkenean Jaurlaritzak Donostian duen Hezkuntza

Sailaren aurrean. Langilekoak ez daude ados Departamenduak hartu dituen bi erabakirekin: Hernanin 3 ikastola publi-

koak batzea; eta Haur eta Lehen Hezkuntzan Langilek duen matrikulazioa 75 ikasletaragutzea. /2

### ❖ KONTZENTRAZIOA

#### Gazaren aldeko kontzentrazioa gaur Donostian

Israelek Gaza bonbardeatu zuela urtebete izango da, eta bonbardaketaren urtemuga oroitzeko, eta Gazaren Askatasunaren aldeko Martxa babesteko, kontzentrazioa egingo da gaur, Donostiako Bulebarrean, eguerdiko 12:00etan, Gerraren Aurkako Gipuzkoako Plataformak deituta. Hernaniko kideek parte hartzeko dei egin dute. ||

### ◆ PELOTA

#### Gipuzkoako Txapelketa Gaur hernaniko bi bikote, aurrez aurre, paletako finalean

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, jubenil mailan, emakumezko paletako finala jokatu da gaur, 10:30etan, Urrietako frontoian. Bertan, bi bikote hernaniar neurtuko dira: Miren Aierbe-Irati Ugalde/Amaia Irazustabarrena-Eli Gutierrez. Partidu nahiko parekatua espero da. ||

### GAUR KRONIKAN

Hernasax taldearen emanaldia Oyarzabalen alde /2

Amher /2

Jasota bezala /2-3

KIROLAK: xakea, saskibaloia, futbola eta judoa /3

Senideen urteko balantzea /6

Logo lehiaketako sariduna /8

Zinea eta laburrak /8



# Amegar

etxe tresnak - altzariak

Zorionak eta  
Urte berri on guztioi!!

Txirrita kalea, 13-15

Tel.: 943 55 11 25 - Faxe: 943 55 16 03



## Langilek deituta, 300 personak egin dute protesta

Hezkuntza Saila hartzen ari den zenbait erabaki dela eta, sinadura bilketak eta kontzentrazioak burutu ditu Langilek. Azkena asteazkenean, Donostian.

HEZKUNTZA Departamendua zenbait erabaki hartzen ari da Hernaniko ikastetxeen inguruan, hala nola, DBHko ikastetxe guztiak fusionatzea eta Haur eta Lehen Hezkuntzan, matrikulazioa 75 ikasletara mugatzea. Erabaki horiekin desadostasuna erakutsiz, hainbat ekintza burutu ditu Langile Ikastolak. Hernanin kontzentrazioa eta sinadura bilketa egin dituzte, eta asteazkenean, Hezkuntza Departamendua Donostian duen egoitzaren aurrean bildu ziren. Langile Ikastolako 300 bat guraso eta irakasle hartu zuten parte. ||



Langile Ikastolako guraso eta irakasle mordoak bildu zen asteazkenean, Hezkuntza Sailaren aurrean.

## Oyarzabali laguntzeko, Hernasax taldeak emanaldia eskaini zuen atzo Kaxkoko kaleetan

Erramun Oyarzabal Musika Eskolako saxofoi irakasle izandakoak 'ictus zerebral' bat izan du eta errehabilitaziorako dirua biltzen ari dira. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte.

ORAIN dela aste batzuk Erramun Oyarzabalek *ictus zerebral* bat izan zuen; Hernani Musika Eskola Publikoko saxofoi irakasle izandakoak eta Hernasax taldekoak. Hori horrela, ondorioetatik errehabilitaziorako dirua biltzen ari dira senide eta lagunak. Atzo bertan, Hernasax taldeak emanaldi bat eskaini zuen

Kaxkoko kaleetan zehar. Helburu berarekin, *Txaranga eguna 2009* ospatu zen Tolosan, joan den igandean.

### Bi kontu korronte

Norbaitek diru laguntza eman nahi izanez gero, bi kontu korronte zabaldu dituzte: Kutxa, Erramun Oyarzabalen Lagun taldea - 2101.0022.04.0127112951 eta Laboralean ere bai, 3035.0026.26.0261119578. ||



Hernasax taldea Kaxkoko kaleetan zehar ibili zen atzo.

### Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Julen Lizaso jauna,

Ez dut atez ate zaborra biltzea martxan jartzearen (ezartzearen?) egokitasunaz eztabaidan jardun nahi, batipat daturik ez daukadalako (ziur asko egin diren hitzaldietara ez joateagatik). Baina gauzabxo bat esan nahi nuke hala ere, Vilassar del Maren bizitako hiru pertsona "bakarrik" ezagututa, marka da hirurak honi buruz ezer onik ez esatea... Eskutitzaren arazoia, eta zuk diozun bezala, boto arduradun ezaren aurrean erreferendumaren ezegokitasunaren gain da. Lehenengo aldia da herri honetan horrelako zerbait entzuten/irakurtzen dudala, izan ere denetarako erreferenduma eta herri partaidetza aldarrikatzen duzuenean (jaiak, aurrekontuak, ea...). Ondo iruditzen zaidana bestalde.

Baina orain, zer da kontua eta botu arduradun ezarena botatzen diguzu muturrera? Honek azalpen zehatza merezi du, edo beste zerbaiten susmoa hartuko diot, hau da, gehiengo baten ezetzaren zalantzen aurrean nahiago duzuela zuen erara ezarri. Horrek izen bat ez al du?

Bestalde hitzaldietara ez joanda, ixilik egoteak arazoia ematea bezala dela esaten duzunean, uste dut berriz ere oker zabiltzala. Beharbada ez joatearen arazoia ez da gogo edo nahi eza, baizik eta herriko txokoetatik pasiatu eta eguzkia hartzeaz gain beste egin behar batzuk baditugulako (lana adibidez, ea...) da. Baina horrek ez du esan nahi ixilik egon beharrean gaudenik, ez jauna!! Hitz egin nahi dugu eta horretarako eskubide guztia dugu (eskubideak, beste arloetan aldarrikatzen diren bezala, ezin dira gaur jarri eta bihar kendu. Bakoitzaren interesaren arabera erabiltzen denean badakigu zer gertatzen den ezta? Eta horren aurka askotan kexu azaldu gara...) Eta erreferenduma, beste gauzetarako bezala, hitz egiteko tresna egokia da.

Bestetik gabe, besarkada bat eta URTE BERRI ON!!!!!!

Andoni Aduriz Izagirre

### ❖ AMHER-SOS ARRAZAKERIA ELKARTE MULTIKUTURALA

«Lan bila dabilzan atzerritarren zerrenda badugu, langile bila dabilena jarri dadila gurekin harremanetan»

Amher elkarteak dio krisiak gehiago eragiten diela inmigrantei eta egoera hobetzen lagundu dezaketenei deia luzatu die.

AMHER Sos Arrazakeria elkarte multikulturalak prentsa ohar bidez deia luzatu die langile bila dabilzan enpresa, partikular edo dena delakoei: «gogorarazi nahi dugu lan bila dabilzan atzerritarren zerrenda badugula, bai papearak dituztenak bai ez dituztenak. Norbaitek interesa izanez gero, jarri dadila elkartearekin harremanetan». Eta gaineratu du: «krisiak gehiago

eragiten die inmigrantei babes gutxiago dutelako (baliabide ekonomiko gutxiago, familiak urrun, paperak berritzeko ziurtasunik ez...).

Elkartearen esanetan, «lana eta oinarrizko gizarte zerbitzuak izateak, diskriminazioa eta bazterkeria saihesten ditu eta horrek laguntzen du gizartea batzen. Denok dugu guzti- on beharra». ||



### Kanpoan eta hemen jaiotakoek bat eginda, afari oparoa egin zuten Txantxangorriin, joan den larunbatean.

Amher-Sos Arrazakeria elkarte multikulturalak antolatuta, afaria egin zen hilaren 19an Txantxangorri elkartearen. Bertan bildu ziren 50 pertsona. Eta tartean ziren kanpoan jaiotakoak eta bertan jaiotakoak. Giro ederrean, herri bakoitzeko janariak probatuz afaldu zuten. Elkartasunean ospatu zuten aurtengo urtearen bukaera. ||

## ◆ EITB - Trindoor txapelketa

# Goñi, Errazkin eta Roman azkarrenak, areto barruko EITB Trindoor txapelketan

Azpeitiarrak izan ziren bigarren, 2 segundu eskasera. Hirugarren Tolosa izan zen, eta laugarren Villabona. EITBko Miramongo aretoa bete egin zuten zaleek.

BADU txapelduna EITBk antolatutako lehenengo Trindoor txapelketak: Hernani. Zehatzago esanda, Arkaitz Goñi, Xabier Errazkin eta Sergio Roman. Faborito ziren atzo jokatu zen finalerako, eta ez zuten hutsik egin, azpeitiarrak *arnas* batera geratu baziren ere.

Arkaitz Goñi «kalkuluak pentsatu bezala» atera zirela esan zuen, eta ez da makala, aurreko marka 12 segunduan



Txapela eman zion Hernaniri Romanen 2 kilometroko 'esprinak'.

ondu, eta azpeitiarrei 2 segunduko aldea kendu baitzieten.

Hernaniarrek 15 minutu eta 10 segundu behar izan zituzten lanak bukatzeko. Goñik 2'54"an egin zuen ergometroko kilometroa; Errazkinek 6'25"ean egin zituen bizikletako 5 km-ak; eta Romanek, bere marka 3 segundu hobetuta, 5'51"an egin zituen 2 km. Ez zen gutxi kostea, baina zapore ederreko garaipena izan da hernaniarrena! ||

## ◆ FUTBOLA - XXXVII. Labaien Torneoa

## Hernanik, Realak eta Añorgak jokatu dute aurten Labaien torneoa

Torneo triangularra izango da, eta jubenilek jokatu dute, ostegunean, Zubipen.

URTEROKO moduan, Gabonetan Labaien torneoa jokatu du Zubipen Hernaniko jubenilen taldeak. Torneo triangularra izango da, hiru ekiporen artekoa, eta aurten, Real Sociedad eta Añorga izango dira Zubipen.

Hiru partidu izango dira; talde bakoitzak bina partidu: lehenengoa Hernanik eta Realak jokatu dute, 16:00etan. Bigarrena, Realak eta Añorgak jokatu dute, 17:00etan. Eta hirugarrena Hernanik eta Añorgak, 18:00etan. Torneoa, datorren ostegunean, abenduaren 31n jokatu da.

**Juantxo Labaienen omenez** Juantxo Labaien zenaren omenez antolatzen du urtero CD Hernanik Labaien Memo-

rial Torneoa. Aurten 37garren aldiz antolatzen dute, eta beti bezala bertan izango dira Juantxo Labaien zenaren senitartekoak.

### Erregionaletan, Hernanik 1-5 irabazi Beriori

Erremediorik onena bilatu zuen Hernanik, ostegunean, bolada txarra alde batera uzteko. Berion jokatu zuten partidua eta 1-5 irabazi zuten. Golak: Urio, Alkorta, Olasagasti, Arregi eta Aginagaldek sartu zituzten. Datorren asteazkenean ere ligako partidua izango du Hernanik, Zubipen, 19:30etan, Aurrera Ondarroa liderraren kontra. Ea ba Hernanik urte bukaera ona egiten duen, datorrena hobeto hasteko. ||

## ◆ SASKIBALDIA

### Gabonetako torneoan lau triangular

Hernaniko saskibalo elkartek antolatuta, lau triangular jokatu dituzte asteartean eta asteazkenean kiroldegian. Asteartean kade-teen txanda izango da eta asteazkenean junior eta seniorrena. ||

## ◆ JUDO A

### Gipuzkoako kadeteen txapelketa, gaur

Gaur Hernaniko kiroldegian judoka gazte koadrila bilduko du goizean zehar. 10:00etan Gipuzkoako kadeteen txapelketa izango da, eta 5 hernaniar izango dira tartean. 11:00etatik aurrera, alebinen eskola kiroleko jardunaldia izango da; tartean 12 hernaniar. ||

## ◆ XAKEA

### Gabonetan, xakean aritzeko aukera umee

Xakean aritu nahi duten umee aukera izango dute, bihar, etzi eta etzidamu (astelehen, astearte eta asteazkenean), Hernaniko Aristizabal kaleko 5 zenbakian. Xake taldeak, arratsaldeko 17:00etan aurrera irekiko du lokala, nahi duenarentzat. ||

## ◆ ATLETISMOA

### Loteria erosi zutenek 3 € partizipazioko

Atletismoko Loteria erosi zutenek 3 € jasoko dituzte, partizipazio bakoitzagatik. Horretarako, Atletismoko lokaletik pasa behar da asteazkenean, 18:00etatik 19:30etara. ||

## ◆ Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Atez Atekoak balio du herri eta hiri handietarako?

Hernaniko Udalak etxeetako hondakinak Atez Ateko sistemaren bidez biltzea erabaki zuenetik, horixe da konbertsazio askotan atera den kontua. "Usurbilen bai, herri txikia da eta. Baina Hernani askoz handiagoa da". Edo beste hau: "Bloketan jende asko bizi den lekuan funtzionatuko al du?".

Argi eta garbi esan behar da: Atez Ateko sistema mundu osoan usatzen da. Ingelese "Door-to-door waste collection" deitzen zaiona bost kontinenteetan egiten da, hori bai, modu ezberdinetan, baina egiten da bai herrialde aberatsetan eta bai pobreetan, izan herri txikietan edo hiri handietan. Hemen muestra bakan batzuk aipatuko ditugu, Hernanin udaberrian hasiko den Atez Atekoaren antzekoa egiten duten lekuetakoak.

Italian Atez Atekoari deitzen zaio "Raccolta differenziata porta a porta". Hau herri txiki askotan egiten da, baina guk hiri handi batzuk aipatuko ditugu, Hernaniren tamainakoak edo dexentez handiagoak: Monza (121.400 biztanle), Piosasco (17.000), Asti (75.800), Novara (104.000), Varese (81.000), Reggio Emilia (166.000), Veneziako Dorsoduro auzoa (17.500), Torino-Turingo 5. eta 7. auzoak (190.000 biztanle denetara), Alessandria (94.000), Capannori (45.500). Erroman bertan (900.000 biztanle) 2010ean instalatuko da Atez Ateko; dagonekoz Ciampino auzoan (38.900) martxan daukate.

Frantzia herri eta mankomunitate askotan egiten da Atez Ateko. Hiri handietan, oraintxe hasi dira Bordeleko zentroko auzo batzuetan. Eta Niort hirian (60.400 biztanle) aspalditik ari dira.

Katalunian Atez Ateko sistemarekin funtzionatzen duten herriek osatuta daukate elkarte: Associació de Municipis Catalans per a la Recollida Porta a Porta. Alde batera utzita txiki asko, handi hauetan ere egiten da: Gavà (45.190 biztanle), Blanes (39.100), Canet de Mar (13.381), Esparreguera (21.451), Palau-Solà i Plegamans (13.916), Torredembarra (15.056)...

Ez dugu zerrenda luzatuko. Hernaniko gizon eta emakumeek, gazteek eta zaharrek, jakin behar dute Atez Ateko bilketa leku askotan egiten dela. Demostratuta dago: Atez Ateko sistema Intzineradora baino askoz hobea da denon osasunarentzako, dirutan merkeagoa da... eta herritar guztiak egunero egiteko errega.

**Ibon Zapiain**  
Hernanin Zero Zabor Taldea



ZAPA KALEA, 8  
943 33 15 06

Urte berri on guztioi!!



Jose Maria de Orbe gidoilari eta zuzendari astigartarrak, Aita izeneko filma ekoitzi du bere haurtzaroa igaro zuen etxean, Astigarragako Murgia Jauregian, hain zuzen ere. Fikziozko film honen ardatza jauregiko pareten gainbehera da.

## Jose Maria de Orbe - 'Aita' pelikularen zuzendaria

# «Film honen funtsa da, zinematografia eredu ezagunik ez jarraitzea»

Estitxu Neira Martinez

**Zer esan nahi du 'Aita' izenburuak? Zure aitari zuzendu nahi diozu filma?**

Nire aitaren etxean filmatzen da, eta hortik dator izenburua. Baina, *Aita* ez da hori soilik, etxea, ohitura, tradizioa, etab. ere esan nahi du.

**Nola bururatu zitzaizun etxean bertan filmatzea?**

Nire jaioterrian filmatzeko gogo handia nuen, eta zer hobe nire herrian eta etxean bertan egitea baino. Nahi hori zinemaren munduan hasi nintzenetik nuen.

**Gidoia idazten zenbat denbora eman duzu?**

Ni gidoiak idazten motela naiz, baina kasu honetan prozesua oso ezberdina izan da, aurretik egindako gidoirik gabe filmatu dugulako. Egunero inprobisatzen nuen, eredu oso irekia erabilia, eta pertsonajeez zein intuizioaz baliatuta. Prestaketak bi urte



'Aita' pelikulako irudiak. Pelikula Astigarragan filmatu du Jose Maria de Orbe astigartarrak.

inguru iraun ditu.

**Noiz filmatu zenuten, eta zenbat denbora iraun zuen filmatzeak?**

2009 urtean zehar filmatu dugu, hainbat fasetan. Guztira 7-8 aste inguru iraun ditu, eta

estreinaldia ez dugu 2010eko udazkenera arte espero

**Zer helarazi nahi izan duzu filmarekin?**

*Aitak* sentsazioez hitz egiten du, emozioez, testuraz. Baita, beste inon aurkitu ez daitez-

keen pertsonajeez ere, hizkuntzaren soinu-ezaugarriez (euskara eta gaztelaniarenak), oso bertakoa den berunargiaz, etab. Egia esan, zinemak eskaintzen dituen adierazpen aukerak hitzez adieraztea oso zaila da, hobe peli-

kula ikusi azaltzen saiatu baino.

**Zeri buruzkoa da filma?**

Etxe baten gainbeheraz eta bizimodu batez hitz egiten du, eta etxeko zaintzailearen egunerokoaren bidez deskribatzen du hori.

**Zein generotakoa da?**

Filma oso pertsonala da, ez dagokio genero zehatz bati. Esango nuke, fikziozkoa dela, baina dokumental eta zinema esperimental kutsua daukana. Egiatzko zatiak ditu, fantasiatzko zatien bidez garatzen direnak. Istoria elementu errealekin eraikita dago, pertsonaje guztiek etxerekin erlazioa dutelako; baina, premisa hortatik abiatuta, fikziozko filma eraiki dut.

**Lehen esan duzun bezala herriko pertsonajeez hartu dute parte, zeinek?**

Bai, denak herrikoak dira edota herriarekin zerikusi zuzena dute, ez dago aktore ezagunik. Pertsonaje nagu-



### JOSE MARIA DE ORBE

Gidoilari eta zuzendaria. 1958 urtean jaio zen Donostian. Esperientzia zabala du laburmetraien zuzendari modura, eta baita publizitatean ere. 1982an, Carlos Perez Ferrek zuzenduriko *Hector* izeneko film luzea koproduzitu zuen, eta film horrek nazioarteko hainbat sari jaso zituen. Bi urte beranduago, Los Angeleseko American Film Institute (AFI)-k beka bat eman zion, eta bertara joan zen zinemaren mundua ezagutzera. 1986an Estatu Espainiarrera itzuli zen, publizitate spotak egiteari ekin zion eta nazioarteko hainbat sari irabazi zituen. Esaterako, Cannes, Donostiako zinemaldia, FIAP, etab.

Horrekin batera, gidoiak idazten hasi zen. 2000 urtean Jaime Rosales ezagutu, eta biek, Maria Jose Diez Alvarezekin batera, Fresdeval Films izeneko ekoizpen etxea sortu zuten. Honela, 2006an, Jose Maria de Orbe bere lehen film luzea idatzi zuen, *La linea recta*. Egun, hiru urte beranduago, *Aita* izeneko filma ekoitzi berri du.

 Hernani Bidaiak Urbietta, 6 943 33 00 49 hernanib@teletel.es www.hernanibidaiak.com	<b>SAN JOSE</b> MARTXOAREN 8TIK 21ERA - 3 GAU <b>SEVILLA - Aptos Resitur</b> PERTSONEKO <b>75'00€</b>	<b>ASTURIASEKO ETXE RURALAK</b> MARTXOAREN 8TIK 21ERA <b>APTOS PICOS DE EUROPA - Cabrales</b> 2 PERTSONA <b>160'50€</b>	<b>SALOU - ASTE SANTUA</b> APIRILAREN 5ETIK 11RA 6 GAU - PC <b>3*** HOTELA</b> PERTSONEKO - UMEA DOAN <b>130'00€</b>
	<b>MADRID - H. Convencion</b> PERTSONEKO <b>90'00€</b>	<b>CASA RURAL OBAYA- Villaviciosa</b> 4 PERTSONA <b>180'00€</b>	<b>4**** HOTELA</b> PERTSONEKO - UMEA DOAN <b>150'00€</b>
	<b>BARCELONA - Aptos Guttemberg</b> PERTSONEKO <b>133'00€</b>	<b>LA CASINA - Onis</b> 6 PERTSONA <b>240'00€</b>	<b>Opari-bonoak prestatzen ditugu!!</b>
	<b>PARIS - H. Opera Lafayette</b> PERTSONEKO <b>136'00€</b>	aukera gehiago <a href="http://hernanibidaiak.bookingfax.com">http://hernanibidaiak.bookingfax.com</a> -bideoak, katalogoak eta informazio zabala	
	<b>DISNEY - H. Cheyenne</b> AD + sarrerak HELDUAK - UMEA DOAN <b>221'00€</b>		

«Nire haurtzaroko etxean filmatu izana, ordainezina den opari bat jasotzea bezala da».

«Egunero inprobisatzen nuen eredu oso irekia erabiliz, eta pertsonai zein intuizioaz baliatuz».

«Nire jaioterrian filmatzeko nahia nuen zinemaren munduan hasi nintzenetik».

siak etxeko zaintzailea -Luis Pescador- eta herriko apaiza -Mikel Goenaga- dira. Filmaren eszena gehienak eurekin filmatu dira. Baina ez dira bakarrik izan, ikastolako andereño batek bere ikasle guztiekin, herriko abesbatzak eta hiru gaztek ere hartu dute parte bertan. Hala ere, batzuk antzeztu behar izan dute fikzioan sartu ahal izateko.

**Zure iritziz zein da pelikula duen gauzarik garrantzitsuena, gehien bereizten duena?**

Ez duela zinematografia-eredu ezagunik jarraitzen. Pelikula hau ezingo zuten egin amerikarrek Hollywooden. Izaera berezia du.

**Zerbait berezia egin behar izan duzu etxean grabaketarako, modu bereziren batean egin duzu?**

Nolabaiteko gainbehera bat adierazi dut, baina besterik ez.


**Film osoa etxe barruan grabatu da, edo bestelako antzezlekuak ikusi ditzakegu?**

Film guztia etxe barruan, kanpoan eta elizan egin da.

**Prozesu guztian zerk eman dizu lan gehien?**

Finantziarioa aurkitzeak. Ez da erraza izan inbertsoreak konbentzitzea horren proiektu arriskutsuan sartzeko.

**Iturri ezberdinez baliatu zara finantziario hori lortze-**



Astigarragako markesaren etxea.

**ko? Eta, etxean bertan filmatzeak nolabait kostuak merketuko zuen...**

*Eddie Saeta* izeneko produktora katalan batek ekoiztu du, eta finantziario iturri ezberdinak izan ditu; esaterako, ICCA, TV3 eta kapital pribatua. Kokapen bakarra eta doanekoa erabiltzerakoan kostea baxuagoa izan da, eta horrek, sorkuntza askatasun handiagoa izateko aukera eman dit.

**Berezia izan da film hau zuretzat, zure herrian eta haurtzarora igaro zenuen etxean filmatzeagatik?**

Guztiz. Niretzako, film baten eraikitze prozesua emaitza bezain garrantzitsua da. Haurtzarora pasa nuen etxean grabatzea oso garrantzitsua da, ordainezina den opari bat jasotzea bezala.

**Etxearen barruan filmatzen ari zinetela, zure bizitzako**

**une bereziren bat etorri al zaizu burura?**

Filma autobiografikoa ez den arren, nire bizipen pertsonalak soinu, textura, eta batez ere, argian daude.

**Emaitzarekin pozik zaude? Espero zenuen bezala atera da?**

Izatez, ni beti autokritikoa izan naiz; baina kasu honetan *Aita* pelikularekin pozik nagoela esango dizut.

## MURGIAKO GAZTELUA

Gaztelu honek -Murgiko dorrea izenekoak- oso historia zabala du. Astigarragan dago, herriko elizaren alboan. Itxuraz, oin errektangularrak du eta hiru solairu. Erdi arotetik XIX. mendera bitartean, Gipuzkoako senide handien jaurerria izan zen. Dorretxea 1457 urtean, Enrique IVaren aginduz eraustu egin zuten. Ondoren, 1512 urtean, Frantziar armadak berriz ere su eman zion. Eta azkenik, Gerrate karlistetan ere, hainbat sute jasan zituen. Elizarekin bat, kuartel, ospital eta hilerri funtzioak betetzen zituen.

Hala ere, jaurerriak asko iraun zuen, eta Gipuzkoako askoren abolizioa biziraun zuen. Murgiarrena, erdi arotetik, Astigarragako inguruetako familia boteretsuena izan zen. Gaztelua, antzina-ko dorretxearen hondakinen gainean eraiki zuten. Joan den mendearan amaieran, eraberritu egin zuten, eta oraingo sarrera nagusiaren gainean Murgiko armarria ageri da. Egun, bertan bizi ez diren arren, euren jabetza izaten jarraitzen du. Hala ere, 2000 urte inguruan, lur-eremu zati bat saldu zen, familiarik beste kide batzuen ere bazena. Eta Udalari parkeko zatirik haundiena eta basoa eman zioten erabilera publikorako. Eliza, apezpikutzari eman zitzaion. ||

**Aurretik ospe handiko sariak irabazi dituzu, pelikula honekin baten-bat lortzea espero duzu?**

Ez dut ideiarik ere. Niretzako garrantzitsuena, nahi nuen lekuan filmatu izana da, eta nik sentitu dudana moduan. Beste guztiak, etorri behar badu, ongi gertatzea izan dadila. Baina, gehien hartu behar dena kontuan, norbere buruarekin leiala izatea da, eta hori jada lortu dut. ||



Urte berri on guztioi!!



**NAGUSIA, 25**  
**943 557 509**



❖ HERNANIKO PRESO POLITIKOEN SENIDEEK URTEKO BALANTZEA EGIN DUTE

## «Aurten Hernanik sekulako kolpea jaso du eta iaz baino 5 preso gehiago daude: 28»

Hiru puntu salatu nahi izan dituzte: «gazte independentisten kontrako sarekada; hiru presori 197/2006 doktrina aplikatzea, kondena luzatuta; eta elkartasuna ezabatu nahi izatea, argazkiak ilegalizatuta eta bis a bisetarako katxeok eginda».

«GAUR egun 28 preso daude Hernanin, orain dela urtebete baino 5 gehiago. Urte honetan hiru herritar askatu dituzte, Graxi Morzillo, Gorka Velasco eta Urtzi Garcia, baina kontrari jaso du herriak kristoren kolpea: Iraitz Santakruz-en atxiloketatik hasi, gazte independentisten kontrako sarekadarekin jarraitu, Joanes Larretxea atxilotu eta Araitz Zubimendi espetxeratzea izan ditugu, hiru hilabeteko haurrarekin. Eta aparte iheslariak daude». Hernaniko preso politikoen senideek urteko balantzearen berri eman diote Kronikari.

### «Baldintzatu nahi izan dute gazte independentisten mugimendua»

Martxoaren 30ean 8 gazte atxilotu zituzten Segiko kide izatea leporatuta: Aitzol Arrieta, Mikel Garcia, Asier Olano, Ekhi Oñate, Jon Ezeiza, Egoitz Balerdi, Iñigo Altzelai eta Txaber Zabaleta. Egun batzutura, Antton Zabala eta Ekaitz Telleriak epailearen aurrean aurkeztu zuten beren burua. 10 gazte horietatik lauk jarraitzen dute behin behineko espetxean: Aitzol Arrieta, Ekhi Oñate, Egoitz Balerdi eta Ekaitz Telleriak.

Elias Miner, Txomin Balerdi eta Rosa Lujanbiok azaldu-takoaren arabera, «sarekada horrekin baldintzatu nahi izan dute gazte independentisten mugimendua».

### 197/2006 doktrina hiru presori

Gazteen atxiloketaz gain, salatu dute hiru hernaniarri



Txomin Balerdi, Elias Miner eta Rosa Lujanbio.

197/2006 doktrina aplikatzea: Pakito Lujanbio, Inma Noble eta Jose Jabier Zabaleta Baldori. Doktrina hori aplikatuta kondenak luzatu dizkiete hirurei. «Pakito eta Inmaren kasuan, biek kondena osoa bete dute. Inmak orain dela urtebete gutxi gorabehera egon behar zuen kanpoan eta Pakitok orain dela bi. 2007ko abenduaren 17an atera behar zuen, 23 urte bete zituen espetxean, eta derrepente 7 urte gehiago pasa behar dituela esaten dute. Txantaje politiko honekin kolektiboa suntsitu nahi dute», azaldu dute senideek. Baldori berriz, kondena bete aurretik aplikatu diote aipaturiko doktrina.

### «Bigarren kondena»

Senideei dagokienean, «udarako argazkien istorioarekin» beraien elkartasuna kaletik ezabatu nahi izan dutela azaldu dute. Aurrez aurreko bisitetan izaten ari diren katxeok ere izan dituzte ahotan: «senideoi tokatzen zaigun egoera dela eta, halako eskubide urraketekin bigarren kondena bat

ezartzen digute. Gure senideak kondenatu dituzte eta gu ere bai dispersioarekin eta orain, bis a bisetan, txantaje eta umilazio bidez. Inkomunikazioa bilatzen dute eta gure arteko kohesioa puskatzea».

### Bilborako deia

Gaineratu dute: «preso politikorik ez dagoela diote, baina aplikazio bereziak guretzat bakarrik dira. Ulertezina da, senideokiko darabilten basakeria. Europa osoan ez dago halakorik. Gu suntsitu nahi gaituzte, baina gure senideengatik beti egongo gara hor; giza eskubideak errespetatu eta betetzeko defentsan».

Ildo beretik, *Euskal presoak Euskal Herrira dagozkien eskubideen jabe* lemarekin, urtarrilaren 2an, Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko dei egin diete herritarrei «daukagun tresna bakarra delako». Manifestazioa arratsaldeko 17:30etan aterako da Aita Donostiatik. Autobusa ere antolatu dute. Atsegindegitik aterako da 15:30etan eta txartelak Garinen daude salgai. ||

X Gabonetako agenda

ABENDUAK 31, osteguna:

• Urtezaharreko erronda: Hernaniko Ohitura Zaharrak abesbatzaren eskutik, 17:30etan Plazatik.



URTARRILAK 1, ostirala:

• Incansables txaranga: goizaldeko 01:30etan aterako dira.

URTARRILAK 2, larunbata:

• Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Agin Rezola, Jon Maia, Andoni Egaña eta Iñaki Zelaia ariko dira bertsoan. Oialumen, 22:30etan.

URTARRILAK 4, astelehena:

• Bertsoa Hernanin proiektua: Proiektua aurkeztuko dute eta bideo emanaldia izango da. Biterin 19:00etan.

URTARRILAK 5, asteartea:

• Errege kabalgata: Kabalgata 18:00etan aterako da.



**biokbi**  
optika

Antziola, 14  
Tel.: 943 33 68 86

Urte berri zoriontsua opa dizuegu!!!

Orain, betaurreko graduatuak edo eguzkitako betaurrekoak erosita, opari bat egingo dizugu.

**pelisimo**  
FOTODEPILAZIO AURRERATUA  
94 333 18 10

Urte berri on!

Kardaberaz kalea, 35  
www.pelisimo.com

Ebatzi ezazu zure gorputzeko edozein ataleko ilea fotodepilazio berritzaile sistema honekin.  
Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.

Bizkarra iztondoak hanka 1/2 besoa axilak

**tarifa bakarra: 30€**

**UNISEX**

- Aurpegi fotogaztetzea  
Eta gainera: - Aknearen tratamendua  
- Aurpegiko orbanen ezabaketa

HERNANIKO KRONIKA  
ETA  
BERRIAK ELKARTEA-ren

# GABONETAKO ZOZKETA



"BERRIAK"  
HERNANIKO MERKATARIEN  
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Hernanika  
kronika

## Azaldu dira lau zenbaki sarituak!!

Zorionak sarituei eta eskerrik  
asko zozketan parte hartu duzuen guztioi.

URTE BERRI ON!



Joan den asteazkenean banatu ziren lau saskien opariak. Saridunak hiru hernaniar eta igeldoar bat dira. Argazkian sariak banatu ziren momentua. Bertan bildu ziren sarituak (Oihana, Araitz, Enara -Kintxoren ordezkari-, Karmele -Oierren ordezkari-, Carmen, eta Begoña), Berriak-eko zuzendaritzako kideak diren Tomas eta Maixa, eta Kronikako Andoni eta Anne.

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● Gauez: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguzkiak gozatzeko aukera izango da. Hego ukituko haizea ibiliko da, orokorrean indar gutxirekin, baina gauean harrotu egingo da. Temperaturak gora egingo du.  
**BIHAR** Hego haize zakarraren eraginez giro epelagoa izango da, baina euri pixka bat ere egingo du. Temperatura nabarmen igoko da, 16-18 °C-ra. (euskaime)



Igor Baionak pozik hartu zuen irabazlearen saria. Ordenagailuan saritutako logoa ikusi daiteke.

## Kooperazio Taldeak badu logoa eta Igor Baionak saria, lehiaketa irabazita

Zortzi pertsonen hartu dute parte eta 20 lan aurkeztu dira. Horien artean, Igor Baionak Saharara bidaiari irabazi du.

HILAREN 17an logo lehiaketako saridunaren berri eman zuen Hernaniko Kooperazio Taldeak. Igor Baionak irabazlea eta Saharara bidaiari irabazi du.

Kooperazio Taldeak urte batzuk daramatza lanean, baina orain arte logotiporik gabe zegoen eta bere ikurra izango zen logotipoaren bila zebilen; taldea bera eta bere filosofia identifikatuko zuen logoaren bila. Orain dela 10 egunetik, badu bera identifikatuko duen logoa, Igor Baionak egindakoa, hain zuzen.

«Aukeraketa zaila» Lehiaketan zortzi pertsonen hartu dute parte eta guztira 20 lan aurkeztu dira. Hona-koak izan dira partehartzaileak: Igor Baiona, Andoni Mateos, Carmen Moneo, Aitor Ruiz de Eguino, Jose Carlos Poza, Adrian Ferreiro, Alba Garcia eta Iñaki Gonzalez. Kooperazio Taldekoek azaldu zuten, aukeraketa oso zaila izan da maila oso altua zegoelako.

**Saharar bizimodua ezagutzeko aukera** Baionak Saharara bidaiatu

ahal izango du Frente Polisarioaren elkartasun bidaiari. Apirila edo abenduan izaten da bidaiari hori. Bertako familiariekin bizitzen da aste bezet; saharar bizimodua ezagutzeko aukera ederra da. Irabazleak ordaindua izango du guztia, baina beste norbaitek joan nahi izanez gero, Lankidetz Sailean jaso dezake informazioa.

**Aminetu gogoan** Saharaz hitz eginez, Aminetu Haidarren gose greba izan zuten gogoan Kooperazio Taldekoek, eta Espainia eta Marokoren jokaera salatu zuten. ||

### ❖ ZINEA

#### 'Txori urdin' pelikula guztientzako ikusgai gaur arratsaldean Biterin

Arratsaldeko 17:00etan hasita, *Txori urdin* pelikula ikusteko aukera izango da gaur Biterin. Hamahiru urteko Merel ikasle arduratsu eta arrakastatsua du protagonista filmak. Bere gurasoekin eta anaia elbarriarekin bizi da hirian, baina Merel ez da gazte alai: arrazoirik gabe, edonora doala, eskolako gelakide talde batek bullinga egiten dio. Mijke de Jong-ek zuzendutako film honek erakusten du haztea batzuetan zein borroka bakartia den. ||

### ❖ 'Zorion perfektua' helduentzat

Helduek arratsaldeko 19:30etan, Jabi Elortegiren *Zorion perfektua* izango dute ikusgai. Sinopsia: Bartzelonan izan zuen istripuak zapuztu egingo dio Ainhoari piano karrera. Bizitza sentimentalak ere ez dio poztasun haundirik ematen, sentimenduak adierazteko duen zailtasunagatik. Bere beldurren arrazoia hamabost urterekin ikusi zuen ETArek atentatua da ||

### ❖ AEK

#### Laboaren omenezko kontzertuko DVDa salgai

Mikel Laboaren omenezko kontzertuko DVDa salgai dago Aralar, Oindi, Tripontzi eta Zumitzan, 10 euroan. ||

### Atez ateko zalantzak argitzen

Gaur egungo zaborren kudeaketak araudia betetzen al du?

Ez. Estatu mailako hondakinen oinarriko araudiak (10/98 legeak, 2001eko apirilekoak) 5.000 biztanletik gorako herriek organikoak ere berezita jaso behar dutela esaten du. Euskal Herrian, Usurbilek bakarrik betetzen du lege hori.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net  
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Alokatzen den pixu baten bila** nabil, Hernanin, 2 edo 3 gelakoa. Deitu: 664 124 259
- Portatila salgai**, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638
- ETXEO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzietza 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berterbra, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berterbra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**arrosak**  
edergintza

Antziola 9  
Tel. 943 33 02 89

Urte berri on!!

**'Cavita'zioa**  
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

**AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK**  
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

**TERMO SALUD**  
cavitación

gerria  
6 sesio  
-2,5 cm

abdomena  
6 sesio  
-1,6 cm

izterrak  
6 sesio  
-2,8 cm

GABONETAKO PREZIO BEREZIAK

**YONE**  
boutique

Nagusia, 63  
Tfona.: 943 55 74 73  
HERNANI